

PRENTSA OHARRA **IKASLE LANA**

Baiona Hiriak ikasleentzako lan eskaintzak berritzen ditu

Baiona Hiriak animatzaileak kontratatzen ditu bere taldeak osatzeko Baionako eskoletan, astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan. Kontratazio hau bereziki ikasleendako pentsatua da, asteen 1 eta 4 egun arteko kontratuendako, haien erabilgarritasunaren arabera. Hautagaitzak Baiona Hiriko Gazte Informazio Bulegora zuzendu behar dira oraindik. Guztira, Hiriak 20 bat gazte kontratatzeko asmoa du.

Ez dago postulatzeko kalifikazio berezirik, animazio esperientzia bat plus bat da (adibidez BAFA), hala ere, gazteek harreman ezaugarriak izan beharko dituzte ikasle talde bat lagundu, gidatu eta kuadratzeko bazkaldu aitzin eta gero proposatutako jardueretan (kirol jarduerak, artistikoak, jolas libreak, eztabaidak, liburu eta historia pausak...). Halaber, parte hartuko dute, ukan dituzten eskoletako jantokietako bazkari denboraren kudeaketan: menua/produktuak aurkeztea, askariak hartzea, haurrek jaten dutela segurtatzea eta zeregin ezberdinetan parte hartzen dutela (mahai-tresnak ordenatu, kendu, mahaia garbitu...).

Edozein informazio edo kandidatura egiteko (CV+kandidatura txostena), ikasleak Baiona Hiriko Gazte Informazio Bulegoarekin (Bourgneuf karrika 71) harremanetan ezartzea gomiatuak dira, posta elektronikoz bij@bayonne.fr edo telefonoz 05 59 59 35 29. Ordainsaria 70€koa izanen da hilabetean 8 oreneko eskuhartzea (egun bat/aste), 280€-koa izan daiteke hilabetean 32 oren eskuhartzeagatik (4 egun/aste).

Xehetasunak ukaiteko BIJeko 05 59 59 39 25 telefono zenbakira deitu edo www.bayonne.fr webgunera jo.

Baiona Hiriak ere ikasleen sartzeari sostengatzen du

Baiona Hiriak herriko beka bat ematen die, baldintzapean, goi mailako ikasketak egiten dituzten baionar ikasleei, hau da, **50.000€-ko urteko engaiamendua**.

[Txostena telekargatu](http://www.bayonne.fr) bayonne.fr internet gunean Baionan bizi naiz atalean / Nere haurrak / 18 urte eta gehiago / Goi-mailako ikasketak, edo Baionako Gazte Informazio Bulegoa kontaktatu.